



AZKUE EUSKALDUN AUNDIAZ LEKEITIO ZORRETAN DAGO

Zein ete dau gai pozgarriagorik, oraingoz, euskal-idazle batek, R. M. Azkue-ren gainean jardutea baiño?

Olantxe da. Ta ganera, ba dogu poz ori berarizkoago ta barrukoago egiteko errazoi ta ziorik. Gaur aitatu ta goratu nai doguna errikidea dogulako, Lekeitioko seme, ain zuzen be.

Aldi onetan gure Eliza Amak liburu santuetan aitaturten dauan antzera esan giñei: «Poztu zaitetz ba, Lekeitio; zeu uri txikia izanik, euskaldun andienetako bat zure magalean sortu izan dozulako».

Ta ez sortu bakarrik, azi ta bizi be, geienbat, Lekeition egin zalako. Batzuetan kanpoan ibili arren, aren gogo ta maitasuna uneoro bere sorterrri kutunagan eban-ta. Ona zegaitik. Udar, iru-lau illabete egoten ekian bere baztertxuan. Eta bera beti egon oi zan lekuan, Euskaltzaindiaren etxe zabalean, Bilboko Erriberako bere langelan zituan lagunik kutunenak, oneixek ziralako: iru foto eder, irurak Lekeitiokoak.

Eurotarik bata, luzangea da, lau zatiz ornidua; portu osoa erakusten dauskuna alderen alde, eleiza osetik asi eta ipar-moilla muturrerainokoa. Antxe agiri da, bera azken urteetan bizi izan zan etxe gora ta liraiña. Jaio zan etxea ezta an agiri, baiña bai Konpañiako elizearen teillatua. Onen ondotxuan dogu aren jaiotetxea.

Bigarren argazkian, plazea, elizaurrea ta kala agiri dira. Eta irugarrena, Lekei-

tioko altara nagusi gotiko ospatsuarena da. Aurrez aurre, bere pianu ganean eukiten eban gure apaiz euskaltzale ta erri-maite zintzo arek.

LEKEITIO-ren ZORRA

Bear ba da, ezta gure jaioterrian onen ereduko edo neurriko gizonik sortu izan. Dana dala, mundu guztian zear, filologi-jakintsuen artean gure erritxua ezaguna baldin ba da, Azkue-gaitik da. Eta Euskalerrion berton bere, gure Don Resurreccion-en maillako gizonik, gitxi bai gitxi izan da. Arrokeririk bage, orra egia esan.

Zor aundia dautso, ba, gure jaioterriak bere seme gailen ta andi oneri.

Lekeitio-ko Udalak erdi erabagita-edo dituan asmuok, al bait lenen bete ta egiztau bear leukezala dirudi: Azkueren izena kale ederren bateri ezarri; aren jaiotetxean arlandu txairo bat ipini eta aren gomutaz, ta leku egokiren baten irudi ikusgarri apain bat jaso. Eta Errikoseme KUTUN-tzat izentau.

Bere erria ainbeste goratu dauanak, ori ta gelago be, ondo merezi daualako.

GURE GIZONA

Lekeitiarra zan aren aita, Eusebio Maria, maisu argi ta euskal-olerkari bikaiña. Onen omenez, 1936-ko bagillean,

au idazten dauanak, itzaldi labur baten ondoren, gomuta-arria agertuteko atsegiña izan eban.

Ama, mundekarra izan zan, Mari Karmen Aberasturi. Jaio, 1864 gn. abustuaren bostean jaio zan, Apalloa kaleko goienengo etxean, goruntz igonik esku-matara.

Bere jaiotegunez, urtero ekian joaten-etxe maite orretara, ordu bat edo bi bertan egoteko asmoz, an bizi ziran adiskideen artean. Biotz samurra iragarten dauan egikera bakana!...

Aitak, bere jakintza gaiak irakatsi eutsazan, Nautika-kontuak. Baiña andik lasterrera abadekigintzan jardun eban abade egin arte, eta Teologiako doktore, ganera. Arrezkero, Euskera-miñak jo eban burutik beatzetaraiño, eta baita musika-zaletasunak be.

Aldi aretan, Bizkaiko Diputaziñoiak Euskerea goratu ta indartu nairik, Euskal katedra bat sortu eban Bilbon. Bost gazte gartsuk agertu eben euren burua, euskalmaisu izateko. Eurotariko iru oso ezagunak izan ziran andik aurrerantzean: Arana, Unamuno ta Azkue, il ziranez izendatuak.

Gazterik il zan Arana; alabaiña, euskal-soloan lorratz bizia ta bere «eskola» utzirik eta idazle ugariren azi izanik. Unamuno bere, euskaltzale gartsu izan zan gaztetan, geroago garrik eta surik barik geldituarren.

Azkue-k lortu eban zer esan ugari ostean, Katedra ori. Ta ordurik eta eriotzararte, urte luze ta luzeetan, bai zintzo ekin be, euskera-maisutzan!...

LIBURU JAKINGARRIAK

Ainbat eta ainbat liburu eder agertu izan ditu R. M. Azkue abadeak.

Batez be, Euskal iztegi nagusia, «Diccionario Vasco-Español-Francés», DVEF, izan da aren emaitzik joriena. Orain dala berrogetamar urte agertua, tomo bitan. Beste edozein gizon jakitunek esana, barriztau daigun: gizon pillokada batek egiteko lan ikaragarria dana, bakar batek egin eban; geure erritarrak.

Norbaitek esan eban, liburu ori argitaratzean, asmo zolia izan eban. ganera: arean, gaztelaniaz ezezik, prantsesez be, egitea. Orrek ezagutuerazo dau arrezkero geien bat, European eta mundu zabalean, gure Euskera zaar eta baliotsua.

Beste iru lan bere, ezin neurtuzkoak izan dira, andi, bikain, mugabakoak; Azkue-k egiñak lan etenbagean.

Galtzeko arriskuan ebiltzan gure kanta ta abestiak, euren musika eta letraz batzeko, dei bat egin eban Bizkaiko Aldundiak. Gizon azkar bi agertu ziran, bakoitzen sorta ederrak bildu ta aukeratu ondoren. Azkue-k milla ta geiago kantaz egiñiko txorta ederra; Aita Donostia-k beste txorta jakingarri ta mamintsua. Gizon biok joan yakuz alkarren ondorik, Euskalerrria miñez ta atsekabez ta utsune bete eziñekoz utzirik...

GRAMATIKA LANAK BARRIRO BE

Musika-arloa ain maitagarri ta begiko yakon arren —konpositorea be, etzan makala-ta—, barriro be jo ta su ekin eutson Azkue-k gramatika lan astunetan.

Artean, gure EUSKALTZAINDIA, Euskal-Akademia sortu eben Oñatin, Españiako azkenengo erregearen aurrean, 1918 urtean. Eta alan bear-ta, lekeitiar euskalaria aukeratu eben maipuruko, beste gizon argi askoren artean: Kanpion, Elizalde, Karmelo Etxegarai, eta abar. Asierako lan nekagarria egiteko guk orain ez dogun kemena eben gizon errime, adoretu ta ao batekoak.

Andik urte asko baiño leen emon eutsan Euskereari, bigarren liburu baztertu eziñekoa: Morfologia Vasca izeneko elizti ugaria. Idazkera batasunerako bidea be, agertu euskun, aren eritiziz, egokiena zana: Gipuzkera osotua, ulerterrezena dalako:

Azkenengo lanetan ederrena. «Euskalerrriaren Yakintza» izan da, lau tomo lodi mamintsutan. euskaldunen siniskera, oitura, ipuin, esakera, kanta ta osakaien barri.

Lanok ba dabela ekatsen bat edo beste? Jakiña ba. gizonen lana ezezik, gizon baten lana izan dalako. Baiñan zelako lana! Sinistu eziñekoa, benetan be!

Berak eraturako izena da NEGURI, gaur aundikien erri apain biurtutakoa.

Madrilleko Academia Española dalakoan, Izkeltzain egin eben 1928 gn. urtean. Pariseko ta Alemaniako ta Errusiako bazkuna jakintsuetako tarteko be, ba zan.

Teatru-lanak be, egin zituan: letra ta musikea, guztia berak asmaurikoa. Zarzulen artean agerregarriena, ta ezagunena, VIZCAITIK BIZKAIRA da. Opera bi be, egin zituan: Ortzuri ta Urlo, au euskeraz, erderaz ta alemanez.

Eliz-irakurgaiak, kantak. ume-antzerkiak, nobelak: BEIN DA BETIKO, ARDI GALDUA, LATSIBI, —au agertu barik oindiño—, iztegi txikiak, gramatikak, aldizkariak...

BIDEBAGEKERIA ZUZENTZEN

Lanik geienok laguntzaille eskasenez edo bakar bakarrik egiñak zituan. Ezta erarik onuragarriena izan Euskerarentzat bakartadeko ekintza ori.


Barru aundiko ta adore aparteko gizona izan zan, nunbait bere! Sarri askotan bidebagekeriz. euskaltzale izeneko askok urteetan eta urteetan baztertuta, eta zapaldu-gurarik lez izan eben gure gizona. Mingotsa da esanbearra, baiña egia da. Guzurra dirudi gizon aren erri-maitetasuna norbaitzuen ao-miñak zalantzan ipinia...

Bidebagekeri ori eta esker gaizto ori, ostera. aren eriotza-ondoren, euskaltzale guztiok ao batez eta biotz batez zuzendu nai dogu.

Azkue ta Euskerea gure biotzetan alkar bat egiñik jarri nai ditugulako. Eta, berberak D'Abadie euskaltzale aipatuari esan eutsan lez: BEIN ETA BETIKO.

Eusebio Erkiaga

MUNDUAN ZEAR



To'lerantzia eta alkartasuna

Robert Briscoe, Dublin'eko kontsejeru munizipala, alkate egin dabe Irlanda'ko uri nagusian. Gauza arrigarria benetan! Dublin uria, guztiz katolikoa da; Robert barriz, judegua. Irlandarrak fama aundia dauke mundu guztian, kristiñau zintzoak direalako. Alan ta guztiz-bere, bildur barik autatu dabe alkateztat judegu bat. Persona apartekoa izan bear dau gizon orrek, kargu ori merezietako. Sartukerako verbaldian auxe esan dau alkate barriak: «Biotz biotzez goratu nai dot emen, nigaz euki dozuen begirunea. Esangura aundiko barria zabalduko da etxe onetatik mundu guztian zear: «Irlanda'n tolerantzia aundia dago eta danak alkartuta bizi dira».

Ea noiz entzuten dogun orain, Israel'

go judeguak, Tel-aviv urian alkate katoliko bat autatu dabela.

Oneek bai trafikanteak!

Beiñola, 1926'an, Naziñoen Ligeak kondenatu egin eban esklavutasuna. Orain, UNO'ko 30 naziñok geitu eta osotu egin dabe orduko kondenaziñoa: asate baterako, debekatu egin dabe zorren ordezeko esklavutasuna, andra-umeen salduerosia, esklavuen trafikoa. Alan ta guztiz-bere, munduan gaur egunean be andra-gizonen salerosketa aundia egiten da. Ekandu gorrotagarri ori mahometano errietan batez-bere aurkituten da. Erri orreetan, zivilizaziño ta erligiño kontuan oso atzeratuta bizi da oraindiño gentea. Latin-kulturadun naziñoetan, ba-dagoz gauza txarrak, baiña gizonen salduerosia

ez da ezagututen gure errietan aintxiñako demporetatik. Gure artean gauza asko erosten dira: izen ona, aberastasuna, atsegiña, maitasuna. Baiña ez dira erosten gizonak, animaliak ferian egiten direan antzera. Mahometano errietan barriz, bizirik dago oraindiño esklavuen trafikoa, Eta ori ogeigarren gizaldian!

Sorgiñak sutara

Mexiko'ko baserri baten, zatitu egin ditue aizkorakadaka andra bi, eta gaberdiko zeremonia ikaragarri baten ostean sutara bota. Bertako gizonak akusatu zituen, «erriko gente ezjakiñari begizkoa egin eutsela, eta deabruaren lagunak zireala».

Ona emen siñiskeriaren eta ezjakiñaren frutua. Alde batetik, andra errukarriak,

gauza supernaturalak edonon ikusten dituenak, eta eguneroko ogia irabaztearren erlegiñoko rituak eta zeremoniak egiten dabezanak. Eta bestetik, gizon basatiak, siñiskeri orreeri fedea emoten deutesenak. Askotan kasualidade bat naikoa izaten da, gente ezikasiaz engañetako; eta orduan «begizkoan» naiz beste edozein zeremoniatan sekulako indarrak ikusten dira, eurak euretara daukezanak baiño aundiagoak. Ba-dakigu demoniñoa bizi dana, eta edozein gizonak baiño indar eta jakituri geiago daukone; baiña generalki ez dau erakusten bere almena edonoiz eta edonon. Deabrua Jaungoikoaren menpean dago, eta beronen baimen barik ezin leike ezer egin; eta zerbait egiten dauanean be, bere egitadak ez dira izaten «begizkoaren» eta beste olako txotxolokerien taiukoak.

MAKAILLAOZALEAK

Bermeoko Talan egon zara iñoiz? Bermeora bazoaz, Talara joan barik ez biurtu etxera. An jezarrí zaitez bertan dagozan zurezko bankuetarik baten. Ikuspegi zoragarri bat zabalduko jatzu begien aurrean: Matxiñako ezkerretara, Ogoño eskumatara, bien erdian Izaro islea, bakarrik eta ixilik, bere komentu zarraren orma apurtuak erakusten. Antxe nengoan oraindiño asko ez dala. Alboan neukan-gizon mardul eta sendo batek zigarro bat eskiñi eustan.

—Eskerrik asko, ez dot erretan—nik erantzun, eta geiago barik verbetan asi gíñean. Itxaso! ze gauza aundia dan itxaso! gaiñeratu neutsan, neure burua apur bat romantiko egíñik. Zek emoten ete deutso geiago gizonari, lurak ala itxasoak?

—Ez neuke esango. Nik neuk, lurreko barri gítxi dakit. Baiña vistan dago: itxas ertzeko erriak aberatsagoak izaten dira lur barrukoak baiño.

—Ori olan da. Zeu, mariñela antza, e?

—Bai. Or Pisbeko makaillozaleetan neure urtetxuak emonda nago itxasoak austen.

—Makaillozale diñozu? Makaillozale nor ez, piperragaz edo tomateagaz ipiñita pil pil dagoanean? Gaziegi bada-go, boteilla bat ardao ekarri egarria

h
kentzeo, ta geiago ez dozu bear makaillozal izateko.

—Bai, egia. Neu be orretan mutilla naiz; baiña nik oraingoan beste gauza bat esan gura neban. Euskalerrí guztian, arrantzuan dabillen gizonari, arrantzale esaten deusagu. Emen Bermeen beintzat, lebatzetan dabillen arrantzaleari ta txalupeari lebatzale, mazitan edo karnadatan dabillinari mazizale. Makailloatan dabillinari zelan esango deusagu ba?

—Makaillozale, bete betean. Orain ba, onetan asi garean ezkerro, esaidazu: euskaldun asko zaree makaillozaleak?

—Bai. Espaiña guztiko kompañietan dabiltzanak ez dira gitxi. Geienean eurak izaten jatzuz barruan agintaritzako karguetan. Kapitán asi ta beerakoak, bai kuberta gaiñean pilotuak, eta kuberta azpian makinistak eta abar.

—Euskalerrian nondikoak?

—Bizkaitik eta Gipuzkoatik bardin-tsu. Beste provintzietarik iñor be ez.

—Non ikasiak?

—Ofizialak eta edozein aginpide daukenak, Marina Merkantean ibilliak izaten dira. Gaiñerakoak baserrietarik etorten dira, geienak beintzat.

—Eta zelako zeregiña izaten da barrukoak?

—Esandeutsut. Barkuaren aginpidea beti edo geienetan euskaldunen eskuetan egoten da. Osterantzeko bearretan be ibilten dira, baiña koziferu, gatzemoille ta onelakoetan. Beste lan astunik ez dabe egiten euskaldunak.

—Españian zenbat dira makaillao arrantzuan dabiltzan konpañiak?

—Ez asko. Printzipalenak iru: Pisbe, Pepsa ta Copiba. Pisbe, indartsuena ta aberatsena: amasei ontzi daukoz eta faktoria bi, bata Pasaian, bestea Ferrolen. Pepsa zortzi barkuren jabe da, eta faktoria bat dauko Vigon. Copiba, irugarrenak, lau ontzi ta faktoria eder bat Chapelan, Vigo ta Redondela bitartean, Pontevedra provintzian. Pepsakoak euren faktoria Coruñan egiteko asmoetan dabiltz. Orregaitik, ain barik dagozan bitartean Chapelara eroaten dabe arraiña. Ba-dira beste armadore batzuk, eurak euretara dabiltzanak. Euren arrasteko vaforak erabilten ditue, eta faktoriarik ez dauken lez, Pisberi edo beste konpañieri saltzen deutse.

—Extranjerutik ba-dabil makaillao-zalerik?

—Seguru. Españiatik baiño geiago.

—Euskaldunen kapitalik bai onelako negozioetan?

—Pisben bai, besteetan ez dakit, baiña ezetzean nago.

—Lege espezialen batzuk makaillao arrantzurako?

—Ba-dira. Naziño bakotxaren uretarako, berak ipinten ditu bere legeak. Naziño bakotxaren uretarik kanpora, lege internazionalak dagoz, eta guztiok ibilli bear lege orreen agindura.

—Makaillaoa bakarrik atrapetan dozue?

—Datorrena dana, ona izan ezkeru, batez-bere lupiñea, lotxea ta abar.

—Makaillao asko Terranova aldean? Esaten dabe makaillao eme bakotxak milloika arrautza ipinten dituala.

—Bai. Ori olan da, baiña zelako sa-soia dan eta zelako urtea. Zer pasetan da antxobeagaz, zer atunagaz? Urte batzuk ugariak, beste batzuk urriak. Gaiñera, ba-dakizu esakunea, arrain aundiak txiharra jaten dau. Ba-dira arraiñak makaillaozale direanak, makaillao

arrautzak jaten dituenak eta makaillao kumeakaz bizi direanak.

—Ze modutako bearra izaten da b gizonak barruan?

—Bakotxak bere eginkizuna. Kapitanak dauko barkuaren agindua, naiz itxasoan naiz arrantzuan naiz portuan. Pilotuak dauke euren kontura kuberta gaiñeko zeregín guztien ardurea. Eurak dira arrantzua dirigietan dabenak; zetan esan be ez, beti kapitanaren begirapean. Lenngo makinistearen kontura egoten da makinետako arazo guztia. Bere menpean dagoz bigarren eta irugarren makinistak, fogoneru ta engrasadoreak, eta euren orduetan guardia egiten dabenak. Kuberta gaiñekoak edo mariñelak, bota bear dabe «arte» itxasora Au—«arte» jaurtigitea—arrisku aundiko gauzea izaten da benetan, batez-bere Norteko itxasoetan, denporale apur bat dabillenean. Zenbat bidar jazo da, kuberta gaiñean bere lanean dabillen gizona olatu traídore batek kuberta gaiñetik garbitu ta itxasoak iruntsitea. Eta gizajoa, alegin guztiak eginda be, eskura ezin ekarri ez bizirik ez illik. Kuberta gaiñekoen ardurea izaten da makaillaoari burua kendu, kanalean ebagi, uretan garbitu ta bodegara sartzea. Kuberta azpikoak gatzitu egiten dabe arraiña.

—Beste gauza bat. Erlegiño gauzetan zer diñozu ba?

—Gauza aundirik eta onik ez. Makaillaozale flota guztietan ez dago abade bat. Errian gagozanean, Canadako portuetan batez-bere, joaten gara eleizara; meza bat entzun edo Aita-gure batzuk erreza edo zeredozer egiten dogu; baiña konfesau ta komulgau ta onelakorik pentsau be ez. Ingeles edo frantsez jakingo bagendu, tira!..., baiña orrenbeste ez dakigu-ta, ezin egin.

—Lastima aundia da ori. Ta irabazte onik ataraten dozue?

—Ez ba. Barruan erabilten dogun bizimodu gogorak beste pagu bat bear leuke. Kapitanari polito pagetan deutse, polito baiño geiagorik ez. Beste ofizialak, kontu egin *tripa truke* dagozala, erriak esaten dauan lez. Beeragokoak, kontuak atara.

—Urtean zenbat urtenaldi egiten dozuez itxasora?

—Pisbe ta Pepsakoak bi bidar. Copibakoak iru. Onen barkuak txikarra goak izanda, arrain geiago artzearren, iru bidar joaten dira. Guk, Pisbe koak beintzat, ia urte osoa egiten dogu itxasoan. Urta-rrillaren erdi inguruan urten, eta Gabon aurreraño.


—Osasuna zaïnduteko medikurik edo botikarik edo olakorik?

—Pisbek mediku bat dauko bere amasei barkuetarako. Besteak, nik dakidala, orrenbeste be ez. Geien geien, praktikante bat ontzi bakotxerako. Norbaït gaïxorik grave jarri ezker, lenbailen

urren dagoan portura eroaten dabé. Frantsesak eta portugesak barku hospitalak daukez. Inor grave gaïxotuten danean, deï egiten deutse radiotik inguruetan dabillan barku orreri, eta ordu gitxi barru gaïxoa klinika baten lez atendiduta egoten da.

—Pentsau be ez neban egingo itxasgizonen bizimodua orren gogorra zanik.

—Ba esan deutsudan guztia egia da. Nik ez diñot ezetz: erriko langilleak euren esturasunak pasau bear ditue umeri egunean eguneango ogia eroateko.



Ona emen Copiba'ko arrantzaleak, Terranova'ko bankustan arturiko makaillao mando bat gaz. Irurogetamar kiloko arriña. Buruak bakarrik, 60 libra.

Baiña itxaso, itxaso da. An, esate baterako, Terranovako bankuetan ia urte guztian egoten dan atmosfera itzala, klima gorra ta temperatura otza, ez dira verbaz esatekoak. Ango itxaso asarretuak, murmoiak (laiño baixuak) eta *iceberg* tontorrak ikusi egin bear dira, zer direan jakiteko.

—Baiña eguraldi ontzurik ez da inoiz izaten?

—Eguraldi ontzuak txitean pitean ba-dakiz egiten Canadako kostetan, Labrador eta Groenlandia inguruetan. Orreterik kanpora beti da gogorra itxasoko lana Norteko itxasoetan.

—Ederto bai ederto igaro dogu ementxe ordu bete ta geiago. Ba-dakizu? Emen esan doguzan gauzatxuok nik ANAITASUNA'n atarako neukez, zeuk oker ez baderitxazu.

—Zeuk gura dozuna.

—Orduan esaïdazu zeure izena.

—Niri Juan Etxebarri esaten deuste Bermeon, baiña izenik ez agertu periodoan.

Alantxe amaitu genduan Bermeoko Talan arratsalde aretako alkarriketa luzea.

A I N G E R U



ALKARTASUNEZ-KO ESPIRITUA

Bein baten, gerrako prisioneru bat ezagutu neban. Konzentraziño kampan egon zanean, familia baten lez bizi izan zan. Prisioneru guztiak benetako komunidadea egiten eben alkarregaz. Gero, gerrea amaituta, etxera biurtu zanean, prisioneru ori triste gelditu zan. Ez eban bere errian aurkituten konzentraziño kampakoko alkartasunezko espiritua.

Komunidadea, soziedadea baiño askoz geiago da. Soziedade bat, dirua irabazteko edo beste obariren bat eukiteko egiten da.

Komunidade bat formatako, arimen batasun sakona bear da. Gizonak zoriontsu izan gura badau, komunidadean bizi bear dau naitanaiez. Komunidade batzuk, aundiak dira. Beste batzuk, txikiagoak. Komunidade aundiak, indarra ta grizea emoten deutse txikiari.

Komunidade txikiak dira egokienak, gizona zoriontsu egiteko eta bere espiritua berotuteko. Gizona ezin leifeke zoriontsu izan, alkartuta bizi ezik.

Komunidade asko dagoz munduan: aita semeen familiako komunidadea, langilleen fabrikako komunidadea, kale-tarren auzoko komunidadea, gazteen olgetatokiko komunidadea.

Igaro dan gizaldia, guztiz txarra izan zan, gizonen artean —batez-bere langilleen artean— alkartasunezko espiritua sortu eragiteko.

Ogeigarren gizaldia, komunidadezalegoa da. Baiña alan ta guztiz-bere, aundiak dira komunidadezko bizitzaren arerioak.

Gaur egunean asko dira, euren erriko komunidade beroa irxita, uri aundietara lan billa joaten direanak. Euren bizileku barrian, askok ez dabe aurkituten eurentzako komunidaderik. Erriko masan banan banan jausten dira, eta izenbako beste numeru bat geiago egiten dabe bertan.

Erri aundietan individualismoa ta razionalismoa ugari bizi dira. Gizonaren indarra ta entendimentua bakarrik aintzat artzen dira. Bere biotza eta bere mistika-egarria aitatu be ez dira egiten. Eta ain zuzen, komunidade bat egiteko, elementu bi orreek —biotza ta espirituzko egarria— bear bearrekoak dira. Erri industrialetan aspalditik falta izan da komunidadezko bizitzea. Orregaitik gaurko langilleak asko sentietan dabe bitzitza orren bearrizana.

Nok emongo deutse bizitza ori? Komunismoak? Ez aurki! Komunismoak emon leiken alkartasuna, ez da gizonaren betekoa. Alde batetik, alkartu egiten ditu gizonak, eta bestetik kendu egiten deutse nortasuna.

Jesukristoren dotriñeak bakarrik erakutsiko deusku zelan bizi geintezkan benetako komunidadean.

Ibieta

Demoniñoaren adar artean

Ene mutillek! Astrapalots bat bazan ikragarriagoa eleiza aretan, astrapalots bat!..

Ango egurotsa! Ango jesarlekuen jaus-tea! Ango ate dranbaladea!..

Demoniñuen bat gitxienez baebillen barruan. Bai, ziur. Gizonezko edo emakumezkozik ez beintzat; iluntzean bertan, iru-lau minutu lenago, Juanitok, eleizan iñor zanentz ikusi-ta, ateak itxi ebazanda. Ama Birjiña Begoñakoa! Joxepak-eta, Mikelak-eta eleiz ondotik etxerantza igarotean artu eben bildurra!

Demoniñuen bat ete ebillen, beraz, barruan? Ala lapurren bat? Edo, bear bada, Garbitokiko animen batzuk?..

—Mikela, goazen ainbat ariñen Parroko Jaunarengana. Joseusss! Demoniñuok egin ez dagikenik orratiño!..

Abadearenera eldu orduko, an eukazan deika eta garraxika gure emakumeak:

—Don Joxe Migel! Betor arin!, demoniñoak dabiz eleizan-da. Arin betor, eleizea bera bota bear dabe-ta. Joseusss, Don Joxe Migel! Badozu lanik konjuruak egiten. Demoniñoetan ibilli bear dau eleizan, demoniñoetan!..

Abadea, etxetik urten eta beingoan joan zan sakristauari deitutera, bere eleiz-eginkizunetan beti eban lagun-da.

Sakristauak, jakiña, joan nai ez. Demoniñoaren adar-arteon jausteko? Bildurra eutsan makala! Mikela-ta, Joxepa-ta naiko lagunik ebazan.

—«Amen» esan besterik eztok egin bearco, Luziano. Ta egitekotan be, iri ez deue egingo ezer demoniñuek, neuri baño... Tira, ator, gizon; ator ainbat ariñen, pizti barrabanok eleizan triskantzan bat egin ez daiguen.

Luzianok, baiña, ezetz eta ezetz. Bildur-ikaraz dardarka be ez egoan ba gizajoa? Abadeak be ez uste gero kolko barruan alako kili-kili edo pikekada batzuk sentietan ez ebazanik.

Baiña eleizea bere kontura eban-eta, ezereen jaramonik barik, nai ta demoniñuek eurekaz eroango baeben be, eleizea zaintzera joan bear berak. Luziano barik zelan ostera?

—Ator, Luziano, ator. Ara: len be esan deuat: urrin-urrintxutik neuk esango

dodanari «amen» erantzun besterik eztok egin bearco. Orixe bakarrik. Tirok, Luziano. Artu eizak eleizako giltzak eta ator, Joxepa-ta be lagun izango ioguzak-eta.

—Don Joxe Migel! Bada-ezpadan be, demoniñoak nire kontra etorten badira, zur ibilli gero! Bota konjuruak sendo!

—Bai, Luziano. Ezik izan bildurrik. Bildurrik ez? Sakristauarenetik urten-da eleiza-alderantza ioiazala, ez neuke esango zeñek eroian dardara audienik. Irutuak be alkarren antzean gizajoa.

Abadea ioian lenengo. Bere atzetik Joxepa ta Mikela. Ta azkenengo, amar bat metro atzeragotik, Luziano, erdi makurrik eta beatz puntetan, zaratarik ez ataratarren. Eldu ziran eleizpera. Belarriak atean josi... eta eleizea ixiltasunik baketsuenian: zarata txikienik be ez barruan. Iges egin ete eben ba demoniñuok?

—Don Joxe Migel! Ez bedi biurto etxera konjuruak egin barik. Demoniñua dan maltzurregaz, berien bat egingo deusku osterantzean-eta.

—Maltzurra ete dan au gero! Baiña, dana dala, emen badago beintzat, laster joan bearco dau inpernuko sakonera nire konjuruen indarrez. Bai orixe! Ekartzuz ia, Joxepa, eleizako giltzok.

Emon eutsazan. Eta abadeak kriskkrask baten eleizako ateak idigi be bai.

Baiña... ikaratu zaite, ene irakurle! Ez dakuszu ba gure Don Jose Migel demoniñoaren adar-arteon, aidean? Eta emakumeen txilioak!... Ta Luzionaren arrapaladea!..

—Luziano! Demoniñoak narovala! Demoniñoak narovala! Lagundu eistak! Ator, Luziano, ator!..


Luzianok, baiña, bere narrua gorde naiago, eta *amen* esan-da, etxera iges egin eban tximistea baiño ariñago.

Ta Don Joxe Migel gizajoa, bere konjuru ta guzti, demoniñoak eroan azkenez!..

Beraz, demoniñoak eroan ete eban? Ja, ja, ja!.. Barrea izan eben gozatsua erritarrek jazoriko au jakin ebenian.

Juanitok ateak itxi aurretik eleizan sarturiko aker aundi bat ezan, ba, gure zorieko demoniñoa?.

ZINEMATOGRAFIA



«Los Diez Mandamientos». Auxe da Cecil B. de Mille'n azkenengo pelikulea. Nok ez dau ezagututen Hollywood'eko filmegille zar au? Nok ez ditu ikusi bere pelikulak? Nok ez dau ikusi «Samson y Dalila»? Batez-bere «El Mayor Espectáculo del Mundo»? Cecil B. de Mille'ri gente asko agertzen dan pelikulak gus-tetan jakoz. Film aundiak egiteko, benetako trebetasuna dauko. «Los Diez Mandamientos», bere azkenengo pelikula onetan, beste film guztietan baiño gauza andiagoak ikusten dira. Iru ordu ta erdiko duraziñoa dauko. Amairu ta erdi milloi dolar kostau izan da. Dirurik ez galtzeko, ogetabost milloi dolar ko-braubearko dira takillan. Origorabeera, Cecil frankil dago. Azkenengo berrogei urteotan, iru milla milloi personaik ikusi dabez bere pelikulak, eta azkenengo au be ez da geratuko gente asko ikusi barik. Pelikula onen planeamentua egiteko, amar urte bear izan ditu egilleak, eta 300.000 dolar gastau dauz investigaziño lanetan. El Cairo ondoan aintxiñako erri baten erreproduziñoa egin eban: obra au, Suez'ko kanalaren urrengo ipiñi leiteke Egipto'ko egintza modernuen artean. Pelikulearen zati baten, 20 000 extra erabili ebazan. Hollywood'en bertan, Itxaso Gorriaren pasua erre-presentatzeko, uraska aundi bat egin eban, eta orretarako etxe batzuk beera bota bear izan zituan.

Bere pelikulearen zabalkundea egiteko, De Mille'k eleiz-gizonen favorea irabazi gura izan dau. Orainarte, aprobaziñozko verba banaka batzuk bakarrik ezagututen doguz: «emozionagarria» (diñoe katolikoak); «Bibliako gauzak guzur barik ekarten deutsoz gaurko gizonari» (metodistak); «aldakuntza aundia sentietan dogu gure barruan, pelikulan Moises'eri jarraituta gero» (bautistak); «pelikula eragille ta emozionagarria» (judeguak).

Baiña propagandeari ez deusagu jaramon aundirik egin bear. «Samson y Dalila» gaz jazo dana, pasa leiteke «Los Diez Mandamientos» egaz. Ain baten, pelikula onetan be, Egipto'ko agintarien bizimodu nabarmen eta sensuala ikusiko dogu; eta bearbada, Moises bera be emakume ederren bategaz maiteminduta agertuko da.

Biblia Santua, Jaungoikoaren verbea da. Eta Bibliako gauzak ziñera eroatekotan, errespetu aundiagaz eroan bear dira. Zoritxarrez, sarritan olako pelikula aundietan errespetu ori falta izaten da.

Orain asko ez dala ospatu da Austria'n Ziñe Katolikoaren Eguna. Egun orretan biziro agertu dabe austriarrak ziñeko problemak aintzat artzeko dauken adorea. Ziñe onaren alde propaganda itzala egin dabe. Eleizetan be,

Ziñearen gainean verba egin da. Leziño ederra guretzako; ez gaitez arritu, gure eleizetan be ziñeko gauzak noize-donoiz ikututen badira.

Bing Crosby'ren semea, Lindsay Crosby, 18 urtekoa, ababe izateko, seminario baten sartu da.

Akordetan zarie «Canción de Bernadette» pelikuleagaz? Japon'eko erri

baten, film ori ikusita gero, 70 persona asi dira kristiñau erlegiñoa ikasten.

Roberto Rosellini, ziñe-direktore ospetsua, Rusia'ra joango ei da, bertako bizimoduaren gainean pelikula bat egiteko asmoz. Artistak, Rusia ta Frantzia'koak izango ei dira.

Goikoetxea

LANEZ EGITEKO... LANIAN

(Soldau gazte baten bertsoak)

I

Gure lenengo aita ta amak
Pekatu egin ebenian...
Asiyerarik gabeko Jaunak
Asarre bizi-bizian...
Ume-zurtz eta zorigalduko
Gu itxi ginduzanian...
Etorkixunen izerdi larri
Sortu jakun gorputzian.

II

Geure lanaren izerdi larriz
Eguneroko ogiya
Irabaziko genduan, bada,
¡Benetan lotsagarriya!
Pekatu bategaz galdu genduan
Zeruefako gloriya,
Ta aukeratu, ondagarritzko
Auxe, inpernu biziya.

III

Latza da lana ta antzeko dana;
Ez da gaitz siñiztutia,
Gaurko jentea ezdala bape
Lanerako zaleegia;
Errezago da, al dauenak beintzat
Lan barik bizi izatia;
Orra munduan gaur dlan gizon
Dan-danen ametsetia.

IV

Antxe dao famili-burua dana
Zintzo ta gogor lanian,
Azken-aldiya atsedean onez
Igaroteko ustian;
Osagille..., ikasle..., jakitun...,
Aberatsak be, nastian,
Gogor jokutzen dabe goixian
Ta atsedean arrastian.

V

Igerri barik dabilta danak
Bakoitza bere lanetan,
Al daben aña zartzarorako
Aurreratu ta gordetan;
Lanian gogor diñardue oiñ...,
¡Baña..., zeren ametsetan?
Azken-aldiko egunak zelan
Ondo igaro pentsetan.

VI

Neuk ezdot asko aituten baña
Au da neure eritxia:
Gerorakoen itxaropenak
Gozotzen dau bizitzia;
Danak dabilta alegiñetan
Dabela auxe ustia:
Lan barik ondo bizi izateko
Lana sendo egitia. *Deunoro Sarduy*

AITA LINO AKESOLO-GAZ BARRIKETAN

Karmeldarra dogu fraile au, oraindiño gaztea, berrogetabost urte baiño ezteukoz. Sasoi onean dago egon be bearren ekiteko.

—Nongoa zara ba jaiotzez?

—Dimoztarra, Zamakola-ren errikoa. Arratian beintzat olan deituten deuskue dimoztarrari: zamakolistek.

—Badakit Aita Karmeldar batek itzutila deukola bizkaierara testamentu barria. Zer dago lan orren gaiñean?

—Bai, Aita Larrakoetxeak deuko itzutila aspandian. Badira amazpi urte inguru amaituta eukala. Geroztik apurtxo bat erraztuten eta azkenengo eskualdia emoten ibilia da, baiña beste zeregin batzuk galazo egiten deutsie. Kanpotik ibiltzen da asko, nausiak aginduta.

—Eztozu uste komeni litzakela evangelioa beintzat argitaratzea?

—Bai, oso egokia izango litzake.

—Ta ezin leike arazo ori beste norbaitek artu, argitaratzeko arazo ori? Zuk zeuk artu bear zeunke Aita Larrakoetxearekin artu-emon onetan zagozan ezkeru

eta gaiñera bere lana noizbait zure eskuetan izan dozun ezkeru.

—Nik egingo neunke. Beñepeiñean badaukat lan bat maiatzerarte. Aleman monja karmelita baten lan bat amaitu bear dot. Ori amaituta artu neinke arazo au.

—Zuen ordenean badagoz euskalzale bikaiñak. Ze arazo nausi dozue eskuartean?

—Aita Onaindia ari da Kristoren antz-bidea argitaratzen; irugarren argitaraldia. Badauko eskuartean Euskaltzaindiaren lan bat be: Arrese ta Beitiaren «Ama euskeriaren liburu kantaria» argitaratzea Aita Emiliano ta Aita Antonio Goiria be bikaiñak doguz. Beste alde batetik Karmengo Amaren egutegia urtean lautan argitaratu gura da.

Fraile adoretzuok be badaragoioe lanean eta laster egi biurtuko jaku eleizgizon guztiak adoretzu ekingo deusiela erlegiñoaren alde amagandik ikasiriko izkuntza erabilia, gizonaren barne-muñetaraño allegetan dan izkuntzea. Olan uste dogu beintzat.

Iztun

ERREGENETAKO IPUIÑA

Edurra zan urian. Aingeru mordo bat zeru goietan euren egoak astintzen ebillela zirudian...

Permiñ, bere txamarra zaar eta koipe-tsuan batuta, bearlekutik etxeruntz etorren. Andra Amaliaren jauregi eder aurretik igarokeran ezin izan eutsan bere barruan sortu jakon aserrekeri sumiñari eutsi, ta bere agoak, abots garratzez, berba loi ta irainkor batzuk jaurtigi ebazan. Bere lankideakaz izan eban jardunaldia gogoratu jakon: Begibakarraren itzak; aberatsen eta abadeen kontrako gorrotozko itzak; erlegiñoari egin eutsazan burla ta barreak...

Bai, egia zan izan be. Bera be ziur egoan baietzatze onen gaiñean. Aundiki ta aberatsen etxeak eraso aal izango balira ta euren ondasun ta aberastasanak banatu, mundua zoriontsua izango litzake.

Ataurrera elduteagaz batera, edurraren kili-kili bigunez lo antzean egoan kaletik

igaro zan Andra Amaliaren automovil ederra. Biotz oneko andra arek Permiñ gozo gozo agurtu eban, baiña onek ezaban ikusi aren berenganako txera ona; ezin ikusi be. Gelditu zan momentu batean. Berbertan, bere etxe pobre-zikin aretan ikusi bear eban ikaragarrizko kua-drua etorri jakon gogora, ta txamarratik zear gorroto-samiñez beteriko negar-maliko batek laban egin eutson.

Andra Amaliak larri asko itaundu eban, bere jauregiko atari zabalean sartu ordukoxe, bere semetxoaren osasunaren barri. Morroiaren erantzun susmagarria entzunda, ariñeketa baten, estu ta artega igon eban marmolezko eskillarea. Bere pena, naibage ta illunaldi sakona amaten gisan ezkutatu ta amaika etxe pobretan alaitasuna erne eban. Makiña bat gurasok ezeben izan, Erregenak direala-ta, ainbeste eroste neketsu (txikiak eta eze-

rezak izanda be euren boltsiko meentzako kaltegarri zirean) egin bearrrik...

Permiñeri, bere eskaratz illunean sartu zanean, bere barru-barrenean erneriko dardara otz bat azurretaraño sartu jakori. Emazte ta alaba nausiak, pozik eta alai, Andre Amaliak euren gana sartu-urten baten emondako sari baliotsuak erakutsi eutsezan. Sari orrei eskerrak, nasaitxoago itxaron leikien laster etortekoa zan bosgarren umetxoa, ta baita poz aundia emon be gela illuneko seaska zaar batean pillotuta egorzan iru mutiko koskorrei.

Permiñeri, barruan nabaritu eban lotsa aundiak ezeutsan itxi egitada arek emondako poztasuna agertzen. Une batean, oso osorik, bere lankideen uste ta asmoak guzurrezkotzat euki ebazan... baiña aren gogoraziñoak zalantza larriak sortu eutsozan eta bere momentu aretako uste ta burutaziñoen damu izan zan Maltzur maltzur ezkutau eban guzti au ta ardura-eza erakutsi, eta zigarro bat erretan asi zan egor ondoan jarrita.

Mari Rosi, neska nausia, urren egoan farmaziara bajatu zanean, erdi lotan egoan Permiñ, urruneko bada ezpadako deadar batzuk itzartu eben. Jaigi zan bizkor, eta Andra Amaliaren aldameneko jauregian argi batzuk ixituta ikusi zituen. Zigarroa jausten itxi ta amorruez beteriko txistua jaurtigi eban lurrera. Bere leengo uste ta asmoak indar barria artu eben. Zer ba? Sari arek zer zirean ba, ondo ornidu ta beteriko maitik jausten direan ondakiñak baiño besterik? Berak, famili pobre ta gosez beteriko baten astuntasun guztia jasan bear ebala, aldamenean, andik ur-urrean, ezeren bearrrik barik, aberats eta nasai, jolasean ta alaitasunean jo ta egur ebiltzan. Mari Rosi, pozez beterik etorrela, bere aitaren arpegiak eukan itxura aserre ta amorratuak, ikaturik itxi eban.

Biaramonéan, auzoko eleizatxoaren kanpaiak, bere ots luze ta astiroaz, aingeru baten zeruratzea adierazo eban. Gizonetzko ta andrazkoen sartu-urten bizia ageri zan Andra Amaliaren jauregiko atari zabalean. Permiñek, jauregitik zarata alaitsuak entzuten ebazala-uste eban momentu aretan bertan, ango umea, Amaliaren semerik txikiéna il zan.

Permiñ, bere txamarra serdoan batuta, arratsaldeko illetan egon zan. Andra Amaliaren esku biguna bere esku latz eta zakarren artean estutu ebanean, barriro be bere barruan zirrikada bizia nabaritu eban.

Edurra mara-mara zan. Kale ondoko arbolen adar eta orriak apal apal makurtzen joiazan astuntasun zuri aren bultzakada bigunagaz.

Permiñ etxeratu zanean, jauregiko andrearen neskameak, otsaratxo baten-jaio-barriarentzat, ildako umetxoaren jan, tzeitxo zuri ta ederrak ekarri zituen. Orduantxe sakondu ta indartu jakon leengo ziztadeak emondako gogo ona, metzen eta aultzen joiana, maite usaiñekoa. Bide zuzena ta alkar maitasuna ezlireala guzurrezko berba utsak sendo siñiztu, ta, bere lankideei, Andra Amaliaren egitada bloztunaren barri emonaz, ori siñiztuerazotea erabagi eban.

Seme txikiak, alaitasun biziáz, euren begi ederrak ta eten arteraño zabaldu bearrrik, Erregeak itxiriko bitxiak erakusten eutsezan. Eta amak, saritzat, alboan lo eukan umetxo jaio-barria ikusten eban.

Edurra zan urian. Aingeru mordo bat zeru goietan euren egoak astintzen ebillela zirudian...

Arbeloa

(J. V. Gallastegi-k euskeratua)

A M E R I K A T A R A

Esteban Sagarna'ri.

Antxinako laguna:

Ire etxeakoak diñostiek ez eidekokela asmorik, onantza etortezenean, iñori arpegira begituteko. Ori zaarra zoan Amerikano guztieri pasetan iakiek berbera. Lau txakur faltrikeran, da buruan sombreua ipini ezkerre, Ingalaterrako Erregeak baiño aundiagotzat ieukiek euren burua.

Segurutik, oingoz pajariteen bat eta

galtzuzko sonbrerua ipiniko einduzala, da ikasiko eindula «cuanto bueno por aquí», ta «como va su vieja» esaten.

Bai gizona, bai, i be putzitura ago, baiña eztoa bedarrak ez lastoak aizatu, Amerikatako ke arinak baiño. Mutil gain arin aberastu az ala?. Etxoat uste. Ollotegi eder bat egiteko beste diru eukitea, baleititikok; samea luze luze egin ta, ki-

Era guztietako gentea bear da: Jakintsuak, ikasiak eta ezikasi zuur eta jakintsuak. Danak osetzen dabe Euskalerrria, eta danak bear dabe norbere alegintxo eskeiñi.

kirri kukurru ibilteko, ori beste gauza bat dok.

Orain, «Argintxoaren» bidea artu badok, ta errekaue egin badautsak Kuba edo Kolombiako neska sistrin, zuria baño baltza geiago dan bateri, ixiltan nok. Baña, orretarako «manboa» jantzan ikasi bearko eindun leen, da Arantzazuko plazan pasadoble triste bat ostaz ostaz jantratzeko mozkor erdikin bat artu bear euenak, ¿zelan demontre egingo jozak, ba, orreik mogimendu baragarri guztiak?

Oba dok denporaz etxeratu'ea, nai ta eperdia agirian etorri. Boltzak zuloz beterik, baña norberaren buruaren jabe. ¿Zer joata «karro» bat eukiteagaz, etxean «lorito» bi badaukazak, bata kaiolan, ta bes-tea alboan?.

Ezin neikek sinistu an Barazargo aldamentean bere gaztezaroko urterik onenak emon dituen, txarri ta olloakaz batera bizimodueroan dauena, Robinson' bat eginik bizi zana, zelan, gaur, ibili leiteken Habanako «Night Club» etan «frac» bategaz jantzita sorginen jantzetan.

Ta, arrigarriena! Koka kola edaten e dok. Orixe bai ez-tala sartzen nire bu-

ruan. ¿Non iauzak ba, ire beñolako kantak «ardau gorri naparra» ta «itxasoa ardauzkoa balitzok»? ¿Non Somerako ibili aldiak, Morga'nean kafea artu ta lasterrean patatadun tortilla bat iruntzi Lekerika'nean? Baña, ¿itxasoa esan doat leentxoago?. Ondo etorriko iata segiduan kontauko doatena, eure erritar bateri jasoa.

«Bein, joan zoan Zeanuriztar bat itxasoa ikustera. Orduko egunean benetan iegoan itxasoa asarre, ta gure baserritarra iñoiz ikusibakoa zanalez ainbeste ur batera, agoa zabalik geratu zoan. Ango zaratea, ango oleatua, ango aizearen txistu zorrotza. Luzerotxoan mutu iegoan itxasoari begira, ta azken baten badiño buruari gora-bera eginik: «Ezkundu adi, bai, ta mantsotuko az».

Ator, itzuli adi eure errira. Emen naukok aspaldiokaz etxoten. Arakatuko jogaizak gure errietako baztar guztiak, neskatilla batzuen billa. Onak, galantak, euskaldun zintzoak, ta ¿zergaitik ez?... Piñudien bat be...

Besarkada bat.

Andoni Totorika

Arantzazuko euskal-sariketa

Arantzazu'ko Andre Mariaren urtea ospatzeko eratu dan sariketarako epaimaieko autatuak izan diranak, Antonio Arrue, Manuel Lekuona eta Luis Mitxelena jaunak, agertu diran idazlanak banan-banan irakurri eta aztertu ondoren, Agorraren amaseian Arantzazun bildurik, onako erabaki auek artu dituzte:

1) Olerki-saillean, lenengo saria, 1.000 pesetako, «Elorriko lerak» deritzanari ematea, eta bigarrena bosteuneko «Tori Arantzazu» izenekoari. Egilleak: Gandiaga'tar Bitoriano Aita, Arantzazuko Prailea, ta Artola'tar Fernando, «Bordari».

2) Artikuluetan, lenengo saria, 1.000 pesetako, «Zotaletzeko artzaia» izena duenari, eta bigarrena «Euskal-sorgiñak eta Arantzazu» deritzanari. Egilleak: Urruzola'tar Estanislao eta Berasaluze'tar Sabin anaia gertatu dira.

3) Antzerti-lanetan bi lanik onenak, berdintsuak izanik 5.000 pesetako sari bakarra bien artean erdibanatzea erabaki

dute. Antzerkien izenak, «Gabak zekarren eguna» eta «Mesederik aundiena». Egilleak Etxaniz'tar Nemesio eta Albisu'tar Anastasio jaunak, biak apaizak.

4) Olerkarien artean bertsolariak ere agertu diralako sari berezirik ezpadago ere orientzat, uste dute maiekoak ongi legokeala beste bi saritxo ipintzea, 500 eta 250 pesetakoak esate baterako. Lenbizikoa, «Arantzazu'ko Amaren edestitxoa» deritzanarentzat izango litzake eta bigarrena «Arantzazu'ko Amari» izenekoarentzat. Egilleak: Joan Baxurko eta Graziano Anduaga «Gezaltzako Aitona».

Atsegin biziz ikusi dute maiekoak zenbat olerki (amazazpi eta lau bertsoberri sorta) eta nolakoak agertu diran norgeiagoka onetara. Aipamen berezia merezi duten guztiak aipatzea luzeegia litzakelako. lau aipatuko ditugu bakarrik, sarituez gañera: «Zaharraren kimu berria», «Bosteun urte ta...», «Elorriko lorea», eta «Kutunki» izenekoak. Egilleak: Bera-

saluze'tar Sabin anai, Žugasti'tar Anizeto apaiza, Dorronsoro'tar Lukas apaizgaia ta Sagarzazu'tar Kauldi, «Satarka». Ederki legoke benetan guziek liburutxo batean agertzea, Arantzazuko Andre Mariaren gorazarrez.

Artikuletan, beste batzuen artean, aipamen berezia merezi du «Arantzazu Penteskostes berri» deritzanak. Egillea Aranalde'tar Joxe Mari.

Antzerki-saillean «Arantzazuko Anai Patxi» deritzanak elkar-izketa bizi ta errikoia agertzen du. Egillea: Arkotxa tar Joxe Antonio.


Arantzazu'n 1956'ko Agorraren 16'an

Antonio Arrue, Manuel Lekuona

Luis Mitxelena

Euskaltzaindikoak

Azkue jauna zanaren omenezko jaiak



Oleaga jaunak, Azkuaren landikea izan zanak, itzaldi eder bat egin eban.

Lendik jakinerazo zanez Azkue jauna zanari omenaldi aundi bat egin jako Bilbon. Lenengo egunean Coliseo Albian, Oleaga jaunak, bere landikea izan zanak, itzaldi eder bat egin eban. Bezperan Euskaltzaindiak batzarra egin eban bere etxean eta Bonifazio Etxegaray jaun Euskaltzaiña il zala-ta, onen eriotzearen begirunez anaiareia emon jakon batzarrari solasaldi bateri bidea emonik.

Azkue beraren musika zati batzuk kantatu zituen Bilboko Coralak D. Modesto Arana jauna gidari. Oso ederto.

Urrengo, «Illeta», bere egille Escudero jauna gidari zala berreun eta berrogetamar kantari inguru, geienak giputzak

eta bizkaitarrak, Bilboko orkestea eta Agara jauna baritono batu zirean. Sekulako zirrara sortu eban entzuleen biotzetan eta guztiak adi adi egon zirean lilluratuta lez, euskal-kutsuko nota guztiak entzuten. Zorionik gartsuenak Escudero jaunari; Euskalerrriak eta bere kulturak, eta bide batez munduak. esperantza aundia dau gizon gazte onengan. Aurrera, ba!

Abadeak be izan eben Azkueren omenez euren batzarraldia, Luistarren saloian urtarrilleko 2'garrenean, Obispo jauna maipuru zala. Eta Maidagan, Ibar-



Arrue jaunok itzaldi eder eta sakon bat egin eban, entzule guztiak pozarran itxalo ugari egiñik.

Zaletasuna dauena saiatu bedi euskal gauzen ikaskuntzan. Aundia da, oraindiño, argitu bearra, eta gutxi buru argi-emoilleak.

gutxi. Olaizola ta Mañaricua jaunak berba egin eben. Azkenengo onek Azkue jauna abade zan aldetik arakatu eban eta euskaldunen arteko kristiñau-ikasbidea dalata gauza asko esan zituen, Azkuerekin zer-ikusia eben gauzak, alegia. Azkenez Obispo jaunak esan zituen itz atsegin eta sentimentuz beteriko batzuk. Zelan batzar orreri, urrezko amaiera ezin emonik ezustez ari zalako berba egiten, beintzat maitasunezko amaiera emoten eutsala. Gogora ekarri eban zelan bere ama Azkue jaunaren landikea izan zan Euskalerritik zear jakin-gai billa ibilli zanean eta zenbait pasario kontagarri adierazo zituen emozioz beterik. Azkenez Azkue jauna abadeen artean eredutzat ipiñi eban.

Erregenetan izan zan bigarren jaialdia. Arrue jaunak itzaldi eder eta sakon bat egin eban, entzule guztiak pozarren txalo ugari egiñik, ez bakarrik akabuan,

baita itzaldi bitartean be bein baiño gela-gotan.


Gero, Txinpartakoak «Iru errege», «Euskal-abestiak» euskal teatroa: «Ekaitza», Olaetaren dantzariak: «Lau urte-aroak», eta amaitzeko «Ekin eta yarrai», Euskalerrriak ama euskereari egiten deustson omenaldia. Izan be, Azkue jaunari egin gineion gorazarerik aundiena euskerearen alde ekitea da.

Azkueren omenez argitaraziño batzuk egiteko asmoa be badago eta Jan-goikoa lagun urtengo dabe argitara.

Zorionik eta eskerrik gartsuenak euren borondate ona ipiñi daben guztieri.

Barri zoritxarreko bat: «Ekaitzaren» egillea, Isusi jauna, oraintsu, Azkueren omenezko jaiak amaituta gero il da Bilbon, oraindiño gizon zaarra ezjala. Erregutu daigun bere arimearen alde.

IZTUN




Euskal-teatroa: Ekaitza.

MUTIL BAT GUTXIAGO DANTZAN.

IREA AL DEK DIRU ORI?

Eskatu Zarautzera frantzizkotarrerri, oso merkeak dira eta gaiñera errazak

Edozein erritako gaztea: Egin euskeraz zuon artean eta aal dozuen geien leidu. Nortasuna sendotuko dozue.



R. M. AZKUE JAUNA
PARRAGA PINTOREAREN LAN EDERRA